



EDIKTUA

**JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA
ETXARRI ARANAZKO ALKATEAK**

ADIERAZTEN DU

ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

Etxarri Aranazko Udalak, 2014ko apirilaren 7ko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Ordenantza Fiskal Orokorraren aldaketa.

Aldaketa jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jendaurreko epean alegaziorik aurkezten ez bada, Ordenantza Fiskal Orokorraren aldaketa behin betikoz onetsita geldituko da eta testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara.

Etxarri Aranatzeko, 2014ko apirilaren 11an.

ALKATEA

Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena

